

Topaketa talentuarekin sagardotegian



Goi-mailako prestakuntzadun nazioarteko hamabost profesional inguruk jarduera soziokulturalean parte hartu zuten

Joan den otsailaren 24an, txotx-denboraldiaren hasiera betean, goi-mailako prestakuntzadun nazioarteko hamabost profesional inguruk Gipuzkoa Talentek antolaturiko jarduera soziokulturalean parte hartu zuten, xedea izanik erakunde desberdinetan aritzen diren profesional horiek elkar ezagutzea eta giro atseginaz gozatzea.

Hala, Astarbe ezagutu zuten, Gipuzkoako sagardotegi zaharrenetakoa, hain zuzen, non sagardoaren sekretuen eta haren inguruan egun garatzen ari diren kontzeptuen berri eman zieten. Ondoren, sagardotegiko menu tradizionala dastatuz, ezagutza eskuratu berri horiek probatzeko parada izan zuten profesionalek. Berez, Frantzia, Mexiko, Brasil eta, estatuan, Albacete eta Avilakoak dira, baina orain Ikor, Pernod-Ricard eta Vicomtechen egiten dute lan.